

TABAKALERA



MC ORPHC)

**NAZIOARTEKO
EGONALDI
TRUKAKETA
DEIALDIA:**

**MORPHO -
TABAKALERA**

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus



ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREKIN LANKIDETZAN



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

1. AURKEZPENA

Artisten mugikortasuna babesteko, horretan laguntzeko eta artisten arteko truke kulturala eta diziplina-aniztasuna sustatzeko, Morphok eta Tabakalerak truke egonaldi-programa bat jarri dute abian.

Morphok denbora, espazioa eta laguntza ematen die artistei, bi eginkizun izanik: batetik, egoitza gisa eta bestetik estudio-hornitzaile gisa, lan artistikorako testuinguru dinamiko eta jasangarri bat sustatze aldera. 250 bat artistarentzako estudioak kudeatzen dituzte Anberesen, eta egoitza bat zuzentzen dute Belgikako eta nazioarteko artistentzat, horiekin harremanak eta ibilbideak eratzeko.

Tabakalerak, sorkuntza-zentro gisa, egonaldi-programa bat garatzen du artistei, sortzaileei eta kultur eragileei laguntzeko. Egonaldi-programaren jomuga nagusia prozesu artistikoei babesa eta laguntza ematea da, nola kontzeptualki hala ekoizpenari dagokionez.

Programa honen medioz, baita gaur egun Tabakalerak kudeatzen dituen beste programa batzuen bidez ere, artisten, eragileen eta horien proiektuen elkarbizitzarako gunek bat sortu nahi dugu, egoiliarren eta gonbidatuen arteko lankidetzaren potentziala sustatze aldera.

2. HELBURUA

Deialdi honen helburua truke egonaldi artistiko bat egitea da Morphoren (Anberes, Belgika) eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren (Donostia) artean. Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzarekin garatzen da programa hau.

Deialdi hau euren praktika artistikoa Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Iparraldean garatzen duten eta Morphoren testuinguru artistiko berriak esploratu eta euren ibilbide artistikoa zabaltzeko nahi duten artistei zuzenduta dago.

Egonaldiak, 6. klausulan azaldu den bezala, **hamaika aste** iraungo du, eta lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu proiektu artistiko bat garatzeko. Egonaldia **2024ko urritik abendura** egingo da.

Jasotako proposamen guztien artean **proiektu bat aukeratuko da**.



3. HAUTAGAIAK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi hau zabalik dago jarduera euskararen eremu geografikoan, hau da, Euskal Herrian (Euskal Autonomia Erkidegoa, EAE), Nafarroan edo Iparraldean garatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztientzat, baldin eta profesionalki arte garaikidearen sektorean lanaldi partzialeko edo osoko proiektu artistikoak garatzen badituzte edo sektore horretan karrera profesional bat hasteko nahia erakusten badute.

Errolda-agiria eskatuko zaie EAEko hautagaiei, eta Nafarroako edo Iparraldeko eskatzaileei proiektuaren adierazpen-hizkuntza euskara izatea.

4. KOMISIO- ETA HAUTESPEN-IRIZPIDEAK

Morphok eta Tabakalerak batzorde misto bat sortuko dute, erakunde bakoitzeko ordezkariak eta kanpoko eragileek osatuta egongo dena, proiektua irizpide hauen arabera ebaluatzeko:

- Berrikuntza eta originaltasuna. Proiektuak Morpho eta Tabakaleraren jarduera eta testuinguruei egiten dien ekarpen-maila.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia (orokorki) eta proiektuak hautagaiaren orain arteko ibilbidean duen koherentzia, bakarka zein taldean (hots, beste eragile edo artista batzuekin).
- Proiektuaren bideragarritasuna eta Morphoren baliabide eta languneetarako egokitzapena.
- Jarduera artistikorako kanalak sortzeko gaitasuna Morphoren egonaldi-programaren testuinguruan.

Ingelesa jakin behar da, maila aurreratuan edo, gutxienez, maila ertainean.

Tabakalerak itxaron-zerrenda bat osatuko du, aukeratutako lehen hautagaia ordezteko baldin eta hark egonaldia onartu ezin izan badu arrazoi pertsonalengatik.

Batzordeak lehiaketa baliogabetu dezake proiektuetako batek ere ez dituela betetzen eskatutako baldintzak ondorioztatzen badu.

5. ESLEIPENAK

Morphoren egonaldi-estudioak eta etxea Station Antwerpen-Centraal geltokiaren atzean daude, antzinako monasterio batean eta etxe atxiki batean. Kunsthal Extra City euren bazkidearekin partekatzen dituzte gunea eta monasterioko lorategia. Anberesko hiriaren eta Flandriako gobernuaren babesarekin.

Estudioen hornitzaile gisa, Morphok languneak alokatzen ditu hirian eta inguruetan kokaturiko hamalau eraikinetan. Komisarioentzako bisita-programa baten eta publiko



zabalarentzako estudio irekien bidez, beren sareko jardun artistikoen garrantzia nabarmentzen dute, artista bisualak, musikariak, idazleak, ilustratzaileak, altzari-egileak, gitarra-egileak, jantzi-diseinatzaileak etab. barne hartuta. Guneak ondo

zainduta eta prezio egokietan mantentzeko konpromisoa hartu du taldeak. Estudioen politikari buruzko eztabaidetan ere parte hartzen du taldeak.

Artistentzako egoitza gisa, Morphok hainbat motatako egonaldiak antolatzen ditu, garapen eta ikerketara (deialdi irekiaren bidez) eta nazioarteko trukera (erakunde elkartuekin lankidetzan) bideratuak. Programa artistikoak ikuspegi ziklikoa du, deialdi ireki eta ikuspegi berri batekin 18 hilabete behin.

Programak honako onura hauek dakartza:

- Joan-etorria aukeratutako pertsonarentzat, bere bizilekutik edo Morphon egonaldia hasi aurretik zegoen lekutik.
- Apartamentu guztiz ekipatua (sukaldea, bainugela eta logela, lan egiteko gune txiki batekin, Internetarako sarbidea wifi bidez).
- 20 m²-40 m²-ko (gutxi gorabehera) lan-eremu bat, oinarrizko altzariak, argiztapena, elektrizitatea eta wifia dituena.
- 2.000 euro gordin (1000 euro hilean) (zergak eta kenkariak barne hartu gabe), egonaldiak iraun arteko bizitza- eta lan-gastuak ordaintzeko konpentsazio gisa. Egokiena artistak Morphori faktura bat egin ahal izatea da; bestela, dieta gisa jasoko du zenbatekoa.
- Baliabide ekonomikoak, gehienez ere 500 eurokoak (kopuru horrek ez du barne hartzen proiektuaren jendaurreko aurkezpena nola egonaldian hala horren ondoren).
- Proiektua garatzeko laguntza kontzeptuala, eta, egoiliarak hala eskatuz gero, testuinguru bereko hainbat eragile eta proiektutan sartzeko laguntza.

Proiektu bateko artista edo eragileren bat kolektibo baten kide bada, proiektu hori ez da onartuko.

6. EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiek hamaika aste iraungo dute, eta 2024ko urria eta abenduaren amaiera bitartean izango dira.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honi erantzuteko eskabidea aurkezteak berekin dakar honako konpromiso hau onartzea:

- Jada onartutako eskabide bati uko egin behar badio, eskatzaileak behar besteko aurrerapenarekin eman beharko du horren berri.



- Interesduna adostutako datetan lantokira justifikaziorik gabe ez bertaratzeak baliteke kasu bakoitzean emandako egonaldia eta laguntza bertan behera uztea.
- Morphon egon ondoren, egoiliar bakoitzak txosten bat aurkeztu behar du bere egonaldiari buruz.
- Egonaldia bera edo hortik erator litezkeen jarduerak Morphok eta Tabakalerak egonaldi-programaren eta languneen esleipenaren inguruan garatutako programazioan sartzeko aukera egongo da.
- Egonaldia artelan edo argitalpen baten ekoizpenarekin lotuta badago, kredituetan Morpho, Tabakalera eta Etxepare Euskal Institutuaren izenak agertu beharko dira.
- Egonaldiak ez du emango programaren ezein zentrotan erakustak gauzatzeko aukerarik, baina aukera egongo da, halere, jendaurrean aurkezpen bat egiteko.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea 2023ko azaroaren 8ko 12:00etatik (GMT +01:00) 2024ko urtarrilaren 8ko 12:00etara (eguerdia) arte (GMT +01:00) egongo da zabalik. Deialdi irekiaren ebazpena 2024ko otsailaren 2an egingo da eta erresoluzio datatik gehienez 15eguneko epean **Tabakaleraren webgunean eta erakundearen sare sozialetan komunikatuko da**. Jakinarazpenaren ondoren, hautagaiak astebeteko epea izango du egonaldia onartzeko.

Eskaera Tabakaleraren webgunearen bidez egin behar da. Formularioa bete eta honako dokumentazio hau erantsi, **euskaraz eta ingelesez**, ondoren zehazten den ordenean:

- Harremanetarako datuak: izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, harremanetarako telefonoa, jaioteguna, NAN zenbakia.
- Proiektuaren azalpena eta Morphoko egoitzan garatu beharreko proiektuaren fasea burutzeko motibazioa (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000 hitz).
- Proiektua ilustratzen laguntzeko edozein irudi edo beste material.
- Gutxienez aurretik garatutako 4 lanen aurkezpena, bakoitzaren irudiekin.
- Curriculum vitae eta biografia laburra (500 hitz).

Dokumentazioa PDF formatuan aurkeztu behar da (gehienez 10MB, 10 orrialde), eta **euskaraz eta ingelesez idatzi behar da**. Agiri horiek edo beste batzuk aurkeztu ezean, aurkeztutako proiektua atzera botatzeko eskubidea izango du batzordeak.

Dosierra honela izendatu behar da: `izena_abizena_exchange_morpho`;
adibidez: `leire_agirre_exchange_morpho`.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai edo parte-hartzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute, bai (i) eskaeraren alorrean, bai (ii) oinarri hauen xede diren baliabideak erabiltzen dituen proiektua gauzatu bitartean Morphori eta Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala



edota ikus-entzunezkoa jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen jabetza eskubiderik urratzen. Ondorioz, Morphoren, Tabakaleraren aurrean edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute, material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualaren harira erreklamazioaren bat aurkeztuz gero; gainera, kalte-ordaina eman beharko diete entitate horiei, adierazitako kontzeptuekin zerikusia duten erreklamazioek sor diezazkieten kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Morphori eta Tabakalerari edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta laguntza horiek jasotzen dituen proiektua exekutatuzko xede bakarrarekin.

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta dokumentazio grafikoaren, testualaren edota ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualaren ondare-izaerako eskubide guztien titulartasunari. Dokumentazio horiek onuradunenak izaten jarraituko dute.

10. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagai edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela Morphori eta Tabakalerari eskaera aurkezteko unean eta oinarri hauen xede diren baliabideekin lagundutako proiektua gauzatzean emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea, eta, gero, laguntza horiek jasotzen dituen proiektua hedatzea.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, jarraian datorren II. klausulan xedatutakoa betez, laguntza jaso duten onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie Morpho eta Tabakalerak oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin lagundutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, adierazten da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, ezin izango dira kontuan hartu laguntzaren eskaera eta deialdiako parte-hartzea.

Hautagaien edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta Morphoren eta Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, hautagaiei edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatuzko, datu horien tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta tratamenduari uko egiteko. Horretarako, pgaraikideak@tabakalera.eus helbide elektronikora bidalitako eskaera egin beharko dute; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste



edozein kontrol-agintaritzza eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki euren eskubideak baliatzean gogobeteta geratu ez badira.

11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatutako onuradunek baimena ematen diote Morphori eta Tabakalerari honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena Tabakaleraren webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin lagundutako proiektuak exekutatzeko. Baimen hori ezeztatzen da.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: pgaraikideak@tabakalera.eus

www.tabakalera.eus